

KULTURA-CULTURA / MUSEOS-MUSEOAK / TURISMOA-TURISMO

“Handitzen ari gara eta etorkizunean Sagardoetxera urtean 30.000 bisitari etor litezke”

LEIRE - 28/03/2013 · 7:35

Sin comentarios



Astigarragak hamar urte daramatza sagardoa eta gastronomiaren inguruko turismoa sustatzen. Joxe Mari Alberrok, Sagardoaren Lurraldeako zuzendariak, Sagardoetxea museoak dituen baliabide guztiak erakusten badira, bisitari kopurua hirukoiztuko dela dio.

Sagardoaren inguruko turismoa suspertzeko **Sagardun Partzuergoa** osatu zen 2003an Astigarragan eta sagardoaren inguruko museo baten ideia lantzen hasi zen. Ondorioz, hiru urte beranduago, **Sagardoetxea**

jaio zen. Azkenik, 2012an marka berri bat sortu zen, **Sagardoaren Lurraldea**, non museoarekin batera esperientzia desberdinak eskaintzen diren.

Hona hemen Noticias de Gipuzkoa egunkariak Joxe Mari Alberrori egindako elkarrizketa:

Eskaintza berezirik al dauka Sagardoetxeak Aste Santuari begira?

Azkeneko urtetan egin dugun bezala, aurten ere sagardoa eta Euskal Herriko gazten dastaketa egingo dugu. Betiko bisitarekin batera, sagastia eta museoa ikusiz, dasta-tzeko tokian Idiazabalgo, Iratiko eta Erronkariko gazten dastaketa egiten da. Aurten, gainera, sagastian landare aromatikoak jarri ditugula aprobetxatuz, bertan usaimenak landuko ditugu. Orain arte ekintza hau dastaketa gunean egiten zen bakarrik.

Nongo bisitariak jasotzen ditu museoak?

Orokorrean inguruko jendea etor-tzen da, Gipuzkoa eta Bizkaiakoak gehienbat; baina Aste Santuan etortzen direnen %40 kanpokoak dira, katalanak eta madrildarrak batez ere. Etortzen direnek gure kultura eta gastronomia ezagutu nahi dute. Dastaketan gaztaren inguruko galdera asko egiten dituzte, dena jakin nahi dute. Sagardoarekin normalean gertatzen zaiguna, Aste Santuan ere gaztarekin gertatzen da. Publiko oso interesatua izaten da.

Museoarekin batera beste ekimen batzuk jarri dituzue martxan.

Ikusi genuen sagardotegietan bazkari eta afariak beste zerbaitekin osatu behar genituela. Sagardotegi bat ez da beste edozein jatetxe bezalakoa. Orduan, sagardotegietan dastaketa gidatuekin hasi ginen, ondoren sagardoak eta itsasoak duten harremana azaltzeko ekintza bat montatu genuen eta lehengo urtean Santiagomendiko Sagardobidea ibilbide tematikoa osatu genuen.

Nola izaten dira dastaketa horiek?

Otsailean hasi ginen eta maiatza arte beste bi egingo ditugu. Kupelan dagoen sagardoa dastatzen dugu, lehengo ohitura hori berreskuratzeko asmoz. Jende askok esaten du: “Jo, sagardotegi batera etortzen naiz eta lau kupeletatik edaten dut, baina ez dut desberdintasunik nabaritzen”, eta hori landu nahi dute. Dastaketa gidatu horietan sagardoaren artean dauden desberdintasunak igartzen ikasten da gehienbat.

Sagartrek esperientzia berria da. Zertan datza?

Petritegi sagardotegiarekin egiten dugun jarduera bat da: sagardoetxea bisitatzen da, Santiagomendiko ibilbidea egiten da eta Petritegin bazkari batekin amaitzen da.

Zer da bisitariak gehien eskatzen dutena?

Aurten Fiturren (Madrilgo turismo feria) komentatu ziguten Madrilgo jendeak bazkaltzeko edo afaltzeko toki bereziak eskatzen zituztela eta horrekin batera mendi buelta bat egin nahi zutela. Eta ondoren Donostian egin zen Sevatur turismo ferian ere askok eta askok gauza bera eskatu zuten.

Ekimenak haurrentzako egokiak al dira?

Hemengo Sagardobidea familiek egiteko prestatuta dago. Gero sagardotegiak ere, batez ere udaran eta Aste Santuan, umeentzako menuak prestatzen dituzte. Eskaintza egokitu behar dugu.

Txotx garaia hemendik aste ba-tzuetara amaitzen da. Nola lortzen duzue urte guztian zehar bisitariak museora erakartzen?

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Categorías

Azokak-Ferias
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Sin categoría
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Maiatzak 11, probaketa
Bereziartua sagardotegian.



Musika giroa alaitzeko
udaberriko giro
paregabea.



6.000 bisitari inguru izan
ditugu Aste Santuan
Sagardoaren Lurraldean.



Euskal Sagardoaren
Museoa eta Santiagomendi
ingurua, “Euskadiko
Biodibertsitatea”
ekimenaren hurrengo
naturguneak.



IV. Sagar Martxa ospatuko
da igandean Hernanin.

Hasi ginenean urtariletik apirilera jende pila bat etortzen zen, baina gero ez zen ia inor gerturatzzen. Orduan ekimen desberdinak prestatzen hasi ginen. Horrela bururatu zitzaigun abuztutik azaroa bitarte, sagarrondoak sagarrez beteta daudenean, mustioa egiteko prozesua erakustea. Gainera, aisialdi taldeekin jarduera desberdinak egiten ditugu.

Inguruko herri sagardogileekin harremanetan al zaudete?

Hemen ere Hernaniko eta Usurbilgo sagardotegiak sartuta daude. Hau irekia dago. Orain dela bi urte Hernanin ere turismo mota hau lantzen hasi ziren eta harreman bat dago gauzak egiteko eta konparti-tzeko. Harreman hori badago eta horrek gehitzen joan behar du. Horrelako proiektu batek ezin du herri batekoa bakarrik izan.

Zenbat pertsona etortzen dira museora urtebetean?

Azeneko urtetan estabilizatu egin da eta 10.000 bisitari inguru jaso ditugu. Urteik urtera igotzen joan gara, baina 2011 eta 2012an mantendu egin gara. Ez gara jaitsi eta horrelako museo txiki bat izateko oso datu onak dira. Bideragarritasun planak egin ditugu eta horietan ikusten da museoaren potentzialidadea askoz handiagoa dela. Gordeta ditugun baliabideak (tolareak, dokumentuak) balorean jartzen baditugu 20.000 edo 30.000 etor daitezkeela kalkulatu dugu. Handitze prozesu batean gaude.

Iturria: Noticias de Gipuzkoa.

Tags: bisitariak, Joxe Mari Alberro, Sagardoaren Lurraldea, Sagardoetxea, Sagardun, Sagartrek, visitantes

Anterior post

"Sagartrek", una ruta al corazón de la sidra."Sagartrek", sagardoaren bihotzera ibilaldia.

Siguiente post

Abril 2013: Sidras de Gurutzeta y Saizar para degustar en Sagardoetxea.2013ko apirila: Gurutzeta eta Saizar sagardoak dasta daitezke Sagardoetxean.

Comentarios recientes

Viktor en Normas de uso del blog
M. BUSTO en Normas de uso del blog

leire en 2012 SAGARDO EGUNAK.
Euskal Herriko sagardo dastaketen egutegia.

Txotx en 2012 SAGARDO EGUNAK.
Euskal Herriko sagardo dastaketen egutegia.

ARA en 2012 SAGARDO EGUNAK.
Euskal Herriko sagardo dastaketen egutegia.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar